



Getxo
**PUNTA
BEGOÑA**
Fundazioa

FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA FUNDAZIOA

**JARDUKETA-PLANA
(AURREKONTUAK)
2022. URTEA**

AURKIBIDEA

ZIURTAGIRIA	 3
FUNDAZIOAREN DATUAK	 4
AURREKARIAK	4
FUNDAZIOAREN ERAKETA ETA EZAUGARRIAK	7
XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK	8
HELBURUAK	9
KUDEAKETA-ORGANOAK	10
ILDO NAGUSIAK	 11
GASTUAK	11
DIRU-SARRERAK	12
INBERTSIOAK	12
PERTSONA, ERAKUNDE EDO KOLEKTIBO ONURADUNAK	 13
2022RAKO AURREIKUSITAKO JARDUERA-PLANA.....	 14
JARDUERA-PLANA	14
JARDUERA BAKOITZAREN GARAPENA	14
BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA	17
2022KO AURREKONTUAREN MEMORIA	 19
GASTUAK	19
DIRU-SARRERAK	22
2022RAKO AURREIKUSITAKO EMAITZEN KONTUA	 24
2022RAKO AURREIKUSITAKO EGOERAREN BALANTZEA	 25

IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA
ETXEITA JAUNAK, PUNTA BEGOÑA
FUNDAZIOKO IDAZKARIAK,

D. IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA
ETXEITA, SECRETARIO DE LA
FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA,

ZIURTATZEN DU: Punta Begonia
Fundazioaren Patronatuak, 2021eko
abenduaren 16ko bileran, erabaki zuela:

CERTIFICA: Que el Patronato
de la Fundación Punta Begonia en su
reunión de fecha 16 de diciembre de
2021 acordó:

**3. PUNTA BEGOÑA
FUNDAZIOAREN 2022KO
EKITALDIRAKO JARDUERA
PLANA ETA AURREKONTUA
ONARTZEA.**

**3. APROBACIÓN DEL PLAN DE
ACTUACIÓN Y DEL PRESUPUESTO
DE LA FUNDACIÓN PUNTA
BEGOÑA PARA EL EJERCICIO 2022.**

Gerentziak azalpenak eman ondoren,
Patronatuak aho batez onartu ditu
Fundazioaren 2022rako jarduera-plana
eta aurrekontua, 430.000 eurokoa.

Tras la exposición por parte de la
gerencia, el Patronato por unanimidad
aprueba el plan de actuación y el
presupuesto de la Fundación para el año
2022, que asciende a una cuantía de
430.000 euros.

Eta horrela jasota geratzeko eta
dagozkion ondorioak izateko, ziurtapen
hau egin, eta Fundazioko
Lehendakariak ontzat eman ostean
sinatu dut, Getxon.

Y para que conste y surta efectos,
expido la presente certificación, que
visada por la Presidenta de la
Fundación, firmo en Getxo.

Ontzat emana/Vto.Bno.
**LEHENDAKARIA/
LA PRESIDENTA**

Amaia Aguirre Muñoa



FUNDAZIOAREN DATUAK

SOZIJETATE-IZENA: FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA
PUNTA BEGOÑA FUNDAZIOA

I.F.K. G 018 297 38

HELBIDEA: Foruak kalea, 1 – 48992 GETXO (BIZKAIA)

ERREGISTRO-DATUAK: Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2020ko abenduaren 29ko Aginduaren bidez inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, **F-463** zenbakiarekin.

JARDUERA: Higiezinaren eraikuntza osoa, konponketa eta kontserbazioa (EJZren epigrafea: 150110)

AURREKARIAK

Punta Begoña Fundazioa sortu da *Getxoko Punta Begoña Galeriak berreskuratzeko eta haien balioa nabarmentzeko proiektua* abian egon den urteetan lortutako jakindurian eta ezagutzan oinarrituta. Bizkaiko udalerrri honetako kostaldean balio ukaezina duen ondare-ondasuna da, eta euskal kostaldeko XX. mende hasierako eraikin berezietakoa.

Hamarkadetan zehar, monumentuari funtzio berri bat emateko ahaleginek ez zuten emaitza onik lortu, eta horrela, mantentze- eta erabilera-faltak eraikuntza hondatu zuten, gordetzen dituen kultura-balioak arriskuan jarri.

Hala ere, eraikinari erabilgarritasuna itzultzeko proposamen horien ondorioz, perspektiba aldatu zen, aurre egiteko ziurrenik eztabaidagarriak izan litezkeen

irizpideen araberrako eraldaketak sustatzeko arriskuari. Horregatik, proiektu bat jarri zen abian, non eraikinaren berreskuratze formala ez zen helburu bakarra, baizik eta honako hauek lortzeko baliatu beharreko prozesu bat:

- Monumentua balorizatzea,
- Gizartea bere ondareari buruz sentsibilizatzea,
- Udal-prestigioaren irudia indartzea, ondarea berreskuratzeko jardunbide egokiaren aldeko konpromisotik sortutako proiektu baten bidez,
- Espazio abandonatu bat kultur leku erreferentziala, bizia eta partekatua bihurtzea,
- Eta, horren ondorioz, jarduera sozioekonomikoa sortzea, iraunkortasun-irizpideetatik abiatuta, toki- eta lurralde-garapena sustatzeko.

Horrekin guztiarekin, 2014ko martxoan, **Esparru-Hitzarmena sinatu zuten Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Getxoko Udalak**, azken erakunde horren jabetzako Begoña lurmuturreko galeriak izeneko higiezinari balioa emateko ildo nagusiak ezartzeko.

2014ko urriaren 13an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Getxoko Udalak lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten, 2014-2015 aldian egin beharreko jarduerak, bitarteko pertsonalak eta materialak eta alderdien konpromiso ekonomikoak zehazteko. Hitzarmen hori beste bi aldiz berritu zen lanek aurrera egin ahala. Lankidetzahitzarmen horietako azkenekoan eratu zen Punta Begoña Fundazioa, jarduera horiek eta estatutuetan jasotako beste batzuk garatzeko eta kudeatzeko tresna gisa.

Denbora horretan, *Punta Begoña Galeriak zaharberritzeko eta balioztatzekeo proiektua* Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan **Euskadirentzat enblematikoak diren 50 proiektu eta ekimenetako** bat dela aitortu da, "Gaitasun berriak sortzeagatik etorkizun handiena duten zientzia- eta teknologia-arloetan, ekoizpen-eragileekin sinergia argiak daudenean eta itzulkin ekonomiko eta sozial handiagoak lor daitezkeenean".

2018an, *Espainiako Arkitektura eta Hirigintza Bienalak* Punta Begoñako Zaharberritze Irekia hautatu zuen **Estatuko proiektu arkitektoniko nagusien** artean finalista gisa, "Arkitekturari aplikatutako ikerketagatik eta gizarteari zabaltzeko, erregistratzeko eta transferitzeko ereduagatik, zaharberritze irekiaren prozesu globala osatzen duten euskarri digitalen bidez".

2019an, gizarteari ezagutza transferitzeko unibertsitate-eredu gisa hautatu zuten proiektua Salamancako Unibertsitateko *Zientzia eta Teknologia Ikasketen Unibertsitate Institutuak*, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko *CIT Ikasketen Institutuak* eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoko *Ingenio Institutuak*.

2021ean, Punta Begoña Fundazioa abian zela, eta monumentua berreskuratzeko eta balioztatzeko proiektua kudeatzeko ardura zuela, 2021-2022 Hiria birgaitzeko eta

Punta Begoña Galeriak proiektua finalista izan zen Arkitektura eta Hirigintzako XIV. Bienalean, hiriko eta paisaiako kultura arkitektonikoaren aurrerapenari eta ezagutzari egindako ekarpenagatik, prozesua sormenezko eta kalitatezko euskarri baten bidez zabalduz, ibilbide horretan gizarte-balioei lehentasuna emanez.

berroneratzeko RERU Masterrean sartu zen, ikerketa eta jardunbide egokien kasu gisa, Bilbao Ría 2000 hiri-kudeaketako proiektuarekin batera, "Obretan eta Irekita"

ondare-kudeaketako ereduaren aplikazio paradigmatico eta integralagatik, hiri jasangarria eratzeko motor gisa. Hori guztia Consell eta Valentziako Etxebizitza eta Arkitektura Bioklimatikoko Kontseilaritzaren 2. lehendakariordetzaren Hiria birgaitzeko eta berroneratzeko Estrategiaren esparruan.

Proiektuaren aurrerapenarekin batera, aplikatutako eredu berritzailearen aintzatespen horiek lortzearekin eta haren irekitasuna eta irisgarritasun publikoa sustatuko zituen jarduera soziokulturala sortzearekin batera, hainbat erakunde publikoren konfiantza lortu zen, eta erakunde horien ekarpenak Getxoko Udalak egindako inbertsioaren kostua minimizatzea ahalbidetu zuen. Horrela, bai Bizkaiko Foru Aldundiak (dirulaguntza irekien edo izendunen bidez), bai Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (euskal kultura-ondarea balioesteko eta hedatzeko dirulaguntzen linearen bidez), bai Espainiako Gobernuak (Sustapen Ministerioak -egungo Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak- (1,5% Kultura Programaren bidez) parte hartzen dute Punta Begoñako Galeriak berreskuratu eta balioesteko egiten diren jardueren finantzaketan.

FUNDAZIOAREN ERAKETA ETA EZAUGARRIAK

2020ko martxoaren 12an, Getxoko Udalak egungo erakunde juridikoa eratu zuen, **Fundación Punta Begoña** izeneko, euskaraz **Punta Begoña Fundazioa** izena duena.

Fundazio horrek nortasun juridiko propioa, independentzia eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa ditu, fundatzaileen borondate-adierazpenean, fundazioaren estatutuetan eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean ezarritakoez gain, beste mugarik gabe.

Fundazioaren zuzkidura 30.000 €-koa izan zen, eta haren ekarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 12. artikuluaaren bigarren paragrafoaren arabera egin zen, honela:

- Getxoko Udalaren 12.337,85 €-ko diru-sarreraren bidez.
- Gainerako zenbatekoa gehienez bost urteko epean ordainduko da.

Eratzeko, erakundeak giza baliabideez zein baliabide tekniko eta finantzarioez hornitu zuen, eta hainbat udal-higiezin erabiltzeko eskubidea laga zion, hau da, Punta Begoña Galeriak eta La Galeako Faro Zaharra eta Gotorlekua, biak mugagabeak.

Fundazioak Getxon garatzen du nagusiki bere jarduera, baina Euskal Autonomia Erkidegoan zabal daitekeela aurreikusten du.

Fundazioa Getxoko Udaletik eta beste erakunde batzuetatik jasotzen dituen dirulaguntzen bidez finantzatzen da, proiektu zehatzetarako laguntzen eta dirulaguntzen programen bidez. Gainera, etorkizunerako aurreikuspen gisa, finantzaketa hori handitu egingo da honako hauen bidez:

- enpresa lagun eta laguntzaileek eta/edo partikularrek egindako ekarpenak,
- egindako bisita, erakustaldi edo ekitaldietarako sarreraren salmenta,
- publizitate-gai erakargarriak merkaturatzea,
- eskuratutako ezagutza transferitzeko zerbitzuak ematea, beste leku batzuetan garatzen diren antzeko proiektuetara, fundaziotik kanpoko operadoreek burututakoetara zein beste erakunde edo pertsona fisiko edo juridiko batzuetatik jasotako kudeaketa- eta garapen-aginduek egindakoetara.

XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK.

XEDEA

Garapen iraunkorrari, kualitatiboari, ekonomikoari eta sozialari laguntzea, herritar guztien onurarako, ondare-ondasunen defentsa eta kontserbazioa komunitatearen plangintza- eta kudeaketa-prozesuetan integratuz, eta horiek atzeraka doazen eremuak indartzeko, lurraldeen arteko sinergia produktiboak sortzeko eta gizarte-kohesioa eta -berrikuntza sustatzeko gai den baliabidetzat hartuz.

IKUSPEGIA

Erreferentziazko erakunde bihurtzea ondarearen kudeaketa integralean, non esku-hartzea ez baita jada helburua, bitarteko etapa baizik askoz ere prozesu zabalago batean, non **kultura-ondasunak bere biografiaren mugarri garrantzitsu gisa eta garapen ekonomiko eta sozialerako baliabide gisa aitortzen dituen herriaren memoriaren gordailu baitira.**

BALIOAK

- **Kalitatearen eta bikaintasunaren aldeko konpromisoa** abian jarritako jarduera bakoitzean.
- Onuradunei fundazioaren helburuen arabera **zerbitzua emateko espiritua**, interes horiek lehenetsiz norberaren edo partikularren interesen aurretik.
- **Ezagutza transferitzea** lurraldeak bultzatzeko eta garatzeko, egindako inbertsio publikoaren itzulkin sozial eta ekonomikoa sortuz.
- **Jokabide-kodeetan eta jardunbide egokietan** oinarritutako jarduera sustatzea.
- **Publizitatea eta gardentasuna** helburuetan eta jardueretan.
- **Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza** onuradunak zehaztean eta jarduerak eta prestazioak garatzean.
- **Genero-berdintasuna** sustatzea.

- Fundazioaren ondarea eta errentak fundazioaren helburuetara bideratzeko betebeharra benetan bete dadin defendatzea eta babestea, fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.
- **Lankidetz**a leial eta iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzarekin.

HELBURUAK

Horrela, eta estatutuetako hirugarren artikuluan jasotakoaren arabera, Punta Begoña Fundazioak bere helburutzat hartzen ditu honako hauek:

- 1| **Getxoko udalerrriaren ondare eta aberastasun historiko-artistikoa aztertzea eta ikertzea**, Punta Begoña osoari arreta berezia eskainiz.
- 2| **Getxoko udalerrriaren ondare historiko-artistikoa** osatzen duten ondasun bereziak **zaintzeko, kontserbatzeko, mantentzeko, birgaitzeko eta zaharberritzeko eta balioa nabarmentzeko** jarduketa zehatzak egin behar dira, batez ere multzo osokoak, Punta Begoña osoari arreta berezia jarrita.
- 3| **Punta Begoñaren multzoa duen potentziala identifikatzeko jarduera jasangarrien** garapena sustatzea.
- 4| **Herritarren harrotasuna kontzientziazten eta sustatzen** laguntzea, Punta Begoñaren balio historiko-artistikoari eta **Getxoko udalerrriaren kultura-ondareari** dagokienez, oro har.
- 5| **Ondarea kudeatzeko eredu bat egituratzea, udalerrriaren aintzatespen-eta nortasun-elementu bihurtuko dena, eta haren aplikazioa kanpoko proiektuetara transferitzea ahalbidetuko duena, egindako inbertsio publikoaren itzulkin sozial eta ekonomikoa sortuz.**

KUDEAKETA-ORGANO

Patronatua fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organo gorenena da, eta fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahalmen guztiak ditu. Egun, honako hauek osatzen dute Patronatua:

Lehendakaria: Amaia Agirre Muñoa andrea, Getxoko Udaleko alkatea.

Patronatukideak: Álvaro González Pérez jauna, EAJ-PNV udal talde politikoaren izenean.

Maria Asuncion Olaeta Pérez de Mendiola andrea, TALDE SOZIALISTA udal talde politikoaren izenean.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda jauna, PARTIDO POPULAR udal talde politikokoa.

Mikel Bildosola Agirregomezkorta jauna, EH BILDU udal talde politikokoa.

Paula Amieva Clemente andrea, ELKARREKIN udal talde politikokoa.

Bestalde, Punta Begoña Fundazioaren diruzaintzaren ardura Maria José Cano Cueli andrearena da, Getxoko Udaleko diruzainarena. Idazkaria Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jauna da, Getxoko Udaleko idazkaria.

Fundazioaren ohiko kudeaketa María Peraita Tajadura zuzendari andreari dagokio.

ILDO NAGUSIAK

Jarduera-plan hau bi premisa erabakigarriren arabera egin da:

- Punta Begoña Fundazioa abian jartzeko prozesua osatzea, bai eta haren jarduera pixkanaka sortzea eta oihartzuna eta inpaktua lortzea ere;
- 2014an hasitako Punta Begoña Galeriak monumentua berreskuratzeko eta haren balioa nabarmentzeko proiektuari jarraipena ematea, gero eta jarduera eta irekitasun sozial handiagoa baitu, bereziki garrantzitsua 2022an, hura eraiki eta erabili zenetik ehun urte igaroko baitira.

Hala, 2022an, Getxoko kultura-ondarearen esku-hartze eta irekiera sozial handiagoaren fase berri hau garatuko du, ezaugarri nagusia izanik fundazioaren jarduera hedatzeko beharra. Baina fase horren helburuak ezin dira lortu, fundazioari eman ezean berau finantzatzeko behar den ahalmen ekonomikoa.

Aurrekontua finantza-orekaren printzipioei jarraituz egin da, eta, finantza- eta ekonomia-arloei dagokienez, adierazten du urtean zehar egitea aurreikusitako ekintzen multzoa.

Aurreikusitako baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak jasotzen ditu, bai eta burutuko den jarduera-programa garatzeko erabili beharrekoak ere, bai eta lortu nahi den bisitari edo erabiltzaile kopurua eta sortu nahi den jarduera ere.

GASTUAK

Gastuak kuantifikatzeko, honako hauek hartu dira kontuan: fundazioko langileengandik datozenak; fundazioaren finantza- eta administrazio-kudeaketa egokirako beharrezkoak direnak; fundazioak lagatako erabilera duen ondarea mantentzeko eta kontserbatzeko gastuak, bai eta irekitzeko eta erabilera publikorako beharrezkoak direnak ere; jarduera-arloetako giza baliabideen beharrianak estaltzeko enpresa pribatuekin egindako kontratuetatik eratorritakoak; eta ondare historikoa idazteko eta garatzeko erabiliko diren beste gastu batzuk, ondare historikoa ere barne hartuta.

Era berean, fundazioaren estatutuetako helburuei erantzuteko planifikatutako jardueren kostuen zenbatespena egin da, zehazki, Getxoko kultura-ondarearen zabalkundea eta gizarteratzea eta Punta Begoña galeriak berreskuratzea. Horrela hartu da kontuan: Punta Begoña Galerietara bisita gidatuak egiteko programa,

Getxoko ondarearen balioak sustatzeko kultur jarduerak (hitzaldiak, erakusketak, jardunaldi zientifikoak, teknikoak eta/edo artistikoak, etab.) Punta Begoña Galeriari eraiki eta erabili izanaren mendeurrena dela eta, eta aipatu ondarearen balioak eta Punta Begoña Fundazioak egindako jarduera hobeto ezagutzeko zabalkunde-ekintza zehatzak.

DIRU-SARRERAK

Diru-sarreraren aurreikuspena egiteko, finantziazioa hainbat bidetatik erakartzea hartu da kontuan: erakunde sortzaitetik kanpoko dirulaguntzetatik (hainbat laguntza-programatarako proiektuak eta hautagaitzak eginez edo lor daitezkeen dirulaguntza izendunen bidez), eragile publiko eta/edo pribatuekiko lankidetzak-hitzarmenetatik, babesletzetatik (2022. urterako berariazko plan bat garatzea aurreikusten da) eta monumentuen erabilerarako eta sozializaziorako ekintzetan bildutako sarreretatik.

Bestalde, esan gabe doa diru-sarreraren aurreikuspen horretan erabakigarria dela erakunde sortzaileak emandako laguntza eta Punta Begoña Fundazioaren jarduera diruz laguntzeko konpromisoa, abian jartzeko behar den guztian.

Azkenik, eta urtean zehar, jardueren ondoriozko diru-sarrerak handitzea eta finantzaketa-iturri publiko eta pribatu berriak erakartzea helburu duten neurriak hartuko dira.

INBERTSIOAK

Aurrekontuak jasotzen dituen inbertsioak bideragarritasun ekonomikoaren arabera zehaztu dira, eta, horretarako, kontuan hartu da Getxoko Udaletik kanpoko erakundeek edo entitateek eman ditzaketen dirulaguntzen aurreikuspena, erakunde horrek emandakoaz gain.

PERTSONA, ERAKUNDE EDO KOLEKTIBO ONURADUNAK

UNESCOK¹ aitortzen duenez, ondareak izaera kolektiboa du berez, gizarte garaikideen kapital kulturala baita. Nazioartean erreferentzia den erakunde horrek jasotzen duenez, kultura-ondareak kulturen eta nortasunen etengabeko balioa handitzen laguntzen du, eta, horrez gain, belaunaldien artean esperientziak, gaitasunak eta ezagutzak transmititzeko bide garrantzitsua da. Gainera, sormenerako eta berrikuntzarako inspirazio-iturri da, eta, aldi berean, kultura-aniztasuna eskuratzea eta gozatzea sustatzen du. Horri kapital soziala aberasteko duen potentziala gehitzen zaio, norbanakoaren eta taldearen parte izatearen zentzua eratuz, zeinak gizarte- eta lurralde-kohesioari eusten laguntzen dion. Horri gehitu behar zaio duen garrantzi ekonomikoa, bereziki sektore turistikoarentzat, hura kontserbatzeko erronka berriak sortzekotan.

Punta Begoña Fundazioak kultura-ondarea garatzea du helburu Getxokoa eta, oro har, EAEkoa, eta, horregatik, bere xedea lortzekotan garatzen dituen jarduerak Getxoko udalerriko herritar guztien onerako izango dira, bai eta ondare historiko-artistikoa kontserbatzea eta ondare horren kudeaketa bere funtzio sozialaren irizpidearen arabera garatzea lehentasunezko zat jotzen duten pertsona guztien onerako ere.

¹ UNESCO. Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea.

2022RAKO AURREIKUSITAKO JARDUERA-PLANA

Dokumentu honetan, Punta Begoña Fundazioak 2022an egitea aurreikusten diren jarduera nagusien laburpena jasotzen da:

- 1| GETXOKO ONDAREAREN AZTERKETAK
- 2| GETXOKO ONDAREA KONTSERBATZEA
- 3| KULTUR EKINTZA
- 4| PROIEKTUAK GARATZEKO BULEGOA
- 5| ZERBITZU KOMUNAK

JARDUERA BAKOITZAREN GARAPENA

1| GETXOKO ONDAREAREN AZTERKETAK

Besteak beste, barne hartzen ditu Getxoko kultura-ondarearen balioak sakon ezagutzeko azterlanak (EAEko gainerako lurraldeetara hedatuta), baita balio kolektibo handiko baliabide gisa aintzatesteko herritarrak sozializatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak ere.

Jarduerak:

- a. **Hitzaldiak, ikastaroak, jardunaldiak edo beste edozein prestakuntza-jarduera** antolatzea, Getxoko ondare historiko-artistikoa ezagutu eta zabaltzeko, arreta berezia jarriz Punta Begoñari.

[3 eta 4 xedeak]

- b. EAEko kultura-ondarearekin lotutako **ikerketak eta prestakuntza-jarduerak** egitea.

[1, 3 eta 4 xedeak]

2| GETXOKO ONDAREA KONTSERBATZEA

Getxoko ondarea zaharberritzera, sendotzera eta birgaitzera bideratutako azterlanak hartzen ditu kontuan, baita jarraitutako prozesua sozializatzeko ekintzak ere,

ondarea eskuhartzeko eta berreskuratzeko eredu gisa izaera irekia, integrala eta eredugarria har dezan.

Jarduerak:

- a. **Jarduketa- eta kudeaketa-gidalerroak onartzea eta garatzea**, bai Punta Begoña osorako, bai Getxoko udalerriko beste **ondare-elementu batzuetarako**, esku hartzeko tresna zehatzen bidez (plan zuzentzaileak edo maisu-planak), ikerketa-, esku-hartze- eta kudeaketa-ildo nagusiak ezartzeko.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- b. Ondare historiko-artistikoa birgaitzeko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko tekniken **azterketa- eta ikerketa-politikak garatzea**, Fundazioaren baitan ezagutza-altxor bat metatzeko, Fundaziotik kanpoko operadoreek beste leku batzuetan garatzen dituzten antzeko proiektuetara estrapolatu ahal izateko.

[1, 2 eta 5 xedeak]

- c. **Getxoko udalerriko ondare eta aberastasun historiko-artistikoaren aldeko jarduerak sustatzeko balio duten jarduerak** bultzatzea, arreta berezia jarriz Punta Begoña osoari.

[1, 2 eta 3 xedeak]

3 | KULTUR EKINTZA

Bere ondare-balioen arabera, lekuaren dinamizazio soziokulturalera bideratutako proiektuaren esparruan garatutako jarduera oro hartzen du.

Jarduerak:

- a. Bultzatzea Punta Begoñako **ondare historiko artistikoaren erakusketa eta zabalkundea** sustatzeko **jarduerak**, gizartean, oro har, eta Getxoko eta eskualdeko herritarren artean, bereziki, baita haren gozamenerako sarbide unibertsala ere.

[3 eta 4 xedeak]

4 | PROIEKTUAK GARATZEKO BULEGOA

Kontuan hartzen ditu proiektuen kontzeptualizazioa eta diseinua, eskuratutako ezagutza transferitzera, kultura-ondarearen eremuan esku hartzeko eta kudeatzeko eredu aplikatzera eta Fundazioaren funtzionamendurako funtsak erakartzera bideratutako proiektuak.

Jarduerak:

- a. EAEko kultura-ondarearen eremuan beste erakunde edo pertsona fisiko edo juridiko batzuetatik jasotako **kudeaketa- eta garapen-jarduerak, -enkarguak edo -gomendioak.**

[4 eta 5 xedeak]

- b. **Patronatuak onartzen dituen programak zuzenean edo zeharka kudeatzea**, EAEko kultura-ondarearen eremuan.

[4 eta 5 xedeak]

5 | ZERBITZU KOMUNAK

Fundazioak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren gainerako jarduerak hartzen ditu kontuan, besteak beste, Fundazioaren jardura administratu, komunikatu eta zabaltzeko lanak.

Jarduerak:

- a. Punta Begoñako **kudeaketa-sistema orokorra finkatzea**, fundazioak kostu-, likidezia-, egonkortasun- eta segurtasun-baldintza onenetan jardun dezan.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- b. Kontabilitate-, zerga-, lan- eta lege-arloetako prozedura operatiboak eta administratiboak etengabe berrikustea eta gainbegiratzea, eta **kudeaketa eraginkorragoa lortzeko prozedura berriak abian jartzea.**

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- c. 2022an eta hurrengo urteetan programa operatibo guztiak garatzeko **funtsak eta baliabideak biltzea eta kudeatzea.**

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- d. **Komunikazio-jarduerak zabaltzea**, Punta Begoña Fundazioaren ikusgarritasuna eta aitoren soziala hobetzeko, bai tokikoa, bai nazioartekoa.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- e. **Fundazioaren jardueren etengabeko jarraipena egitea** patronatukideekin, eta urteko helburuak lortu diren baloratzea.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- f. Fundazioaren martxa eta errendimendu hobean eragiten duten eta gizarte osoan inpaktua areagotzen duten **beste jarduera batzuk**, pertsoneri edo taldeari dagokienez.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA

ERAKUNDEAK LORTU BEHARREKO DIRU-SARREREN AURREIKUSPENA

2022ko Jarduketa Plana garatzeko aurreikusitako diru-sarrerak taula honetan laburbiltzen dira:

DIRU-SARRERAK

	1. jarduera	2. jarduera	3. jarduera	4. jarduera	5. jarduera	GUZTIZKOA
1 PATRONATUKIDEEN EKARPENA FUNDAZIOARI						278.329,04
1.1 Getxoko Udala	37.305,00	114.269,04	24.180,00	-	102.575,00	278.329,04
2 DIRULAGUNTZAK						138.610,96
2.1 Eusko Jaurlaritza	-	108.990,96	-	-	-	108.990,96
2.2 Bizkaiko Foru Aldundia eta beste erakunde publiko eta/edo pribatu batzuk.	21.800,00	-	7.820,00	-	-	29.620,00
3 LANKIDETZA-HITZARMENAK ETA BABESAK						8.500,00
3.1 Erakunde babesleak eta/edo laguntzaileak	5.500,00	-	3.000,00	-	-	8.500,00
4 BESTELAKO JARDUERA EKONOMIKOAK						4.770,00
4.1 Sarrerak eta/edo beste jarduera ekonomiko batzuk kobratzea	4.770,00	-	-	-	-	4.770,00
LORTU BEHARREKO BALIABIDE GUZTIEN AURREIKUSPENA	69.375,00	223.260,00	35.000,00	-	102.575,00	430.210,00

- 1. jarduera: GETXOKO ONDAREAREN AZTERKETAK
- 2. jarduera: GETXOKO ONDAREA KONTSERBATZEA
- 3. jarduera: KULTUR EKINTZA
- 4. jarduera: PROIEKTUAK GARATZEKO BULEGOA
- 5. jarduera: ZERBITZU KOMUNAK

ERAKUNDEAK ERABILI BEHARREKO BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA

GASTUAK

	1. jarduera	2. jarduera	3. jarduera	4. jarduera	5. jarduera	GUZTIRA
1 KAPITAL-AURREKONTUA						106.000,00
1.1 INBERTSIOAK	-	106.000,00	-	-	-	106.000,00
2 USTIAPEN-AURREKONTUA						138.610,96
2.1 ZUZKIDURAK	-	27.895,00	-	-	52.305,00	80.200,00
Langileak	-	27.895,00	-	-	51.805,00	79.700,00
Finantzarioak	-	-	-	-	500,00	500,00
Zergak	-	-	-	-	-	-
2.2 KANPO ZERBITZUAK	69.000,00	86.990,00	-	-	44.970,00	200.960,00
Konponketak eta kontserbazioa	-	51.500,00	-	-	-	51.500,00
Hornidurak	-	-	-	-	-	-
Beste empresa batzuen lanak	40.000,00	34.540,00	-	-	33.920,00	108.460,00
Ikerketa eta garapena	29.000,00	-	-	-	-	29.000,00
Aseguru-primak	-	950,00	-	-	-	950,00
Bulegoko gastuak	-	-	-	-	2.000,00	2.000,00
Komunikazioak	-	-	-	-	5.250,00	5.250,00
Garraioak	-	-	-	-	3.800,00	3.800,00
2.3 HAINBAT GASTUA	375,00	2.375,00	35.000,00	-	5.300,00	43.050,00
Kanonak eta tasak	-	-	-	-	-	-
Beste gastu batzuk	375,00	2.375,00	-	-	-	2.750,00
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	-	-	-	-	5.300,00	5.300,00
Getxoko ondarea sustatzea	-	-	35.000,00	-	-	35.000,00
GASTUEN AURREIKUSPENA GUZTIRA	69.375,00	223.260,00	35.000,00	-	102.575,00	430.210,00

2022KO AURREKONTUAREN MEMORIA

GASTUAK

GASTUAK. FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK

ZUZKIDURAK | 80.200,00 €

Hona hemen ekitaldirako aurrekontuan sartutako gastuak:

- **Langileak:** sozietatearen zuzendari-ahaldunarena gastua, hau da, urtean 58.750 euroko soldata, Gizarte Segurantzaren 17.900 euroko kostua eta 3.050 euroko ekarpenak egitea pentsio-sistema osagarrietara.
- **Finantzarioak:** banku-gastu txikien kostua, guztira 500 eurokoa.
- **Zergak:** ez da aurreikusten kontzeptu horrengatik kosturik 2022ko ekitaldian.

KANPO ZERBITZUAK | 200.960,00 €

- **Konponketak eta kontserbazioa:** ekitaldiko gastu normalen artean sartzen dira Begoña lurmuturreko galeriak monumentuaren garbiketa orokorra eta landare-mantentzea (39.000 euro) eta horien mantentze-gastu txikiak (2.000 euro). Gainera, 8.800 euroko higie-, irisgarritasun- eta suteen aurkako babes-instalazioen mantentze-gastuak aurreikusten dira, bai eta monumentua zaharberritzean berreskuratutako zeramika- eta marmomaterialen kontserbazioa eta biltegitratzea ere, 1.700 euroan.
- **Hornidurak:** ez da aurreikusten kontzeptu horrekin parekatu daitekeen kosturik 2022ko ekitaldian.
- **Beste enpresa batzuen lanak:** kontzeptu horrengatik aurrekontuan 15.500 euro sartu dira Punta Begoña Fundazioari lotutako zerbitzu juridikoengatik, teknikoengatik, fiskalengatik, lanekoengatik, kontabilitatekoengatik eta auditoretzagatik, gehi 360 euro gehiago erregistro-gastuengatik.

Era berean, Getxoko ondarea berreskuratzeko prozesuekin lotutako laguntza teknikorako (arkitektonikoa, geoteknikoa, zaharberritzailea eta ondarezkoa) gastuak hartzen ditu, 52.600 euro.

Azkenik, Punta Begoña galeriak gizarteratzeko kudeaketa logistikotik eta zerbitzuen garapenetik eratorritako gastuak ere sartzen ditu, bisita- eta musealizazio-ekintzen bidez, haien eraikuntzaren mendeurrena dela eta,

aurreikusitako esku-hartzeen aprobetxamendua eta zabalkundea dela eta, eta prozesuaren gardentasunaren alde, 40.000 euroko zenbatekoan.

- **Ikerketa eta garapena:** Begoña lurmuturreko galerietan aurkitutako historiaurreko aztarnategiari eta hari lotutako memoria historikoari buruz garatu beharreko ikerketa historiko eta arkeologikoko hirugarren kanpaina jasotzen du atal honek, 29.000 eurokoa.
- **Aseguru-primak:** Punta Begoña Fundazioak kontratatutako 950 euroko hainbat aseguri dagokie.
- **Bulegoko gastuak:** bulegoko materiala eta inprimakiak, 2.000 eurokoak.
- **Komunikazioak:** telefonoa eta interneterako sarbidea erosi eta kontsumitzeagatik, web orria mantentzeagatik eta horretarako itzulpenak egiteagatik 5.250 euroko gastua.
- **Garraioak:** mezularitzako bidalketa txikiak, bestelako garraioak eta dietak; guztira, 3.800 euro.

HAINBAT GASTU | 43.050,00 €

- **Beste gastu batzuk:** 2.750 euroko zenbatekoa aurreikusten da hainbat gastutarako.
- **Publizitatea eta propaganda:** Punta Begoña Fundazioak ekitaldi honetarako aurreikusitako jardueraren publizitateagatik, propagandagatik eta zabalkundeagatik aurrekontuan jasotako gastuak 5.300 eurokoak dira.
- **Getxoko ondarea sustatzea:** Getxoko ondarearen balioak sustatzeko eta zabaltzeko ekintza bat aurreikusten da, 35.000 eurokoa.

GASTUAK. FUNTSEN ERAGIKETAK

INBERTSIOAK | 106.000,00 €

2022ko ekitaldian diruzaintzaren kontura inbertsioak egitea aurreikusi da. Kontzeptu horren barruan sartzen dira Punta Begoña Galerien egitura partzialki sendotu eta sendotzeko obratik eratorritako gastuak (47.500 euro), bai eta Getxoko ondarea berreskuratzeko, kontserbatzeko eta balioesteko proiektu teknikoak egitea ere (58.500 euro).

INBERTSIOAK	Importe
Begoña lurmuturreko galerien egitura partziala sendotzeko eta egonkortzeko obra-lanak.	47.500,00 €
Getxoko ondarea berreskuratzeke, kontserbatzeko eta balioesteko proiektu teknikoak egitea.	58.500,00 €
Inbertsioen eranskina, guztira	106.000,00 €

GASTUEN AURREKONTUAREN LABURPENA

Gastuen koadroaren laburpena, lehen azaldutako partiden arabera, honako hau da:

FUNTZIONAMENDU-GASTUAK, GUZTIRA 324.210,00 €

FUNTS-ERAGIKETEN GASTUAK, GUZTIRA 106.000,00 €

AURREKONTU-GASTUAK, GUZTIRA 430.210,00 €

DIRU-SARRERAK

FUNTZIONAMENDUKO DIRU-SARRERAK

PATRONATUKIDEEN EKARPENA FUNDAZIOARI | 278.329,04 €

Getxoko Udalak Punta Begoña Fundazioari 278.329,04 euroko ekarpena egin dio, bere jarduera garatzeko.

DIRULAGUNTZAK | 138.610,96 €

Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondarearen arloko programa zehatzak zuzenean edo zeharka kudeatzeko bazkide sortzaileek egindako ekarpenak eta aurreikusitako dirulaguntza publiko eta pribatuak biltzen ditu. Azken horien artean, Eusko Jaurlaritzak 2020-2022 aldian euskal kultura-ondarea hedatzeko eta balioesteko programaren barruan emandako dirulaguntza, 38.366,57 eurokoa, eta Punta Begoña Fundazioak 2021-2023 aldirako eskatutakoa, 70.624,39 eurokoa, 2022 ekitaldirako. Era berean, kontzeptu horretan sartzen dira Bizkaiko Foru

Aldundiak eta beste erakunde publiko batzuek, hala nola Punta Begoñak, hurrengo kanpainarako eta sozializatorako egin ditzaketan ekarpenak.

LANKIDETZA-HITZARMENAK ETA BABESAK | 8.500,00 €

Partida honetan sartzen dira erakunde babesleek eta laguntzaileek kultura-zabalkundeko jarduerak garatzeko edo ondare-ondasunak eta haien balioa nabarmentzeko proiektuak ikusarazteko lortutako diru-sarrerak, bai eta fundazioaren helburuak lortzen laguntzeko lortutakoak ere, 2022ko ekitaldian 8.500 euroko zenbatekoan.

BESTELAKO JARDUERA EKONOMIKOAK | 4.770,00 €

Hor sartzen dira fundazioaren helburuekin edo helburu osagarri edo osagarriekin lotutako beste jarduera ekonomiko batzuen garapenagatiko diru-sarrerak, horien artean, Punta Begoña Galerien sozializazioaren esparruan garatutako bisita edo tailerengatik sarrerak kobratzea, 4.770,00 euro.

DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LABURPENA

Diru-sarreraren koadroaren laburpena, lehen azaldutako partiden arabera, honako hau da:

AURREKONTU-SARRERAK, GUZTIRA 430.210,00 €

AURREKONTUAREN EGOERA

Ondorioz, 430.210,00 euroko sarrerekin eta zenbateko bereko ustiapen-gastuekin, 2022 ekitaldirako aurreikusitako ustiapen-emaiza baliogabea da.

2022RAKO AURREIKUSITAKO EMAITZEN KONTUA

Jarraian, 2022rako emaitzen kontuaren aurreikuspena aurkezten da.

2022ko EKITALDIRAKO AURREIKUSITAKO EMAITZEN KONTUA (eurotan adierazita)

	2022
1 Negozio-zifraren zenbateko garbia	13.270
6 Langile-gastuak	-79.700
7 Ustiapeneko beste gastu batzuk	-244.010
8 Ibilgetuaren amortizazioa	0
9 Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelakoen egozpena	310.940
11 Ibilgetua besterentzeagatiko hondamena eta emaitza	0
A) USTIAPENAREN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11)	500
12 Finantza-sarrerak	0
13 Finantza-gastuak	-500
B) FINANTZA-EMAITZA (12+13+14+15+16)	-500
C) ZERGEN AURREKO EMAITZAK (A+B)	0
17 Mozkinen gaineko zergak	0
D) EKITALDIKO EMAITZA (C+17)	0

2022RAKO AURREIKUSITAKO EGOERAREN BALANTZEA

Jarraian, 2022rako aurreikusitako egoeraren balantzea aurkezten da.

AKTIBO	2022	2021
A AKTIBO EZ-KORRENTEA	126.102	20.102
II. Ibilgetu ez-materiala	126.102	20.102
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	0	0
VI. Zerga geroratuen aktiboak	0	0

B ACTIBO ARRUNTA	33.975	16.313
III. Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	0	0
3. Beste zordun batzuk	0	0
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	33.975	16.313

AKTIBOIA GUZTIRA (A+B)	160.077	36.415
------------------------	---------	--------

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2022	2021
A ONDARE GARBIA	156.077	32.415
A-1 Funts propioak	29.975	12.313
I. Fundazioaren zuzkidura	30.000	30.000
II. Galdatu gabeko ordainketengatiko sortzaileak	-17.662	-17.662
III. Erreserbak	0	0
IV. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-25	-25
VII. Ekitaldiaren emaitza	0	0
A-3 Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	126.102	20.102

B PASIBO EZ-ARRUNTA	0	0
II. Epe luzeko bestelako zorrak	0	0
IV. Zerga geroratuen pasiboak	0	0

C PASIBO ARRUNTA	4.000	4.000
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	4.000	4.000
1. Hornitzaileak	700	700
2. Bestelako hartzekodunak	3.300	3.300

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)	160.077	36.415
-------------------------------------------	---------	--------



Getxo **PUNTA BEGOÑA** Galeriak
Muelle de Ereaga, s/n
48992 | Getxo | Bizkaia



T + 34 944 91 08 00



info@puntabegonagetxo.eus
www.puntabegonagetxo.eus